



■ LITERATUR SOLASALDIA

'Zaharrak ez zuen hil nahi' nobelari buruz, bihar

Literatur Solasaldiak izango dituzte bihar, Udal Liburutegian, eta bertan ariko dira Gaizka Zabarteren lehendabiziko nobela komentatzen: *Zaharrak ez zuen hil nahi*. Ane Mayozen eskutik, 19:30etatik aurrera. ■

■ ZILEGI ESKOLAK

Sexualitateari buruz ariko dira, asteazkenean

AEKk antolatuta, eta Zilegi Eskolen barruan, tailerra izango da asteazkenean. Sexualitate tailerra emango dute, 19:00etatik 21:00etara, Biteri kultur etxean. ■

■ OLINPIADAK

Patin lasterketa, asteazkenean

Hernaniko kaleetan barrena ibiliko dira asteazken iluntzean, patinetan. Plaza Berrin zita egin dute 21:30etan. Portalondotik atera, Tiloseta, Gudarien plaza, eta Plaza Berri, hori dute egin beharreko bidea, eta tartean probak izango dituzte. ■

■ PILOTAKADAZ PILOTAKADA

Izen-ematea, eskuz eta palaz binaka jokatzeko

Maiatzaren 10ean, Pilotakadaz pilotakada ekimenaren barruan, eskuz eta palaz binako txapelketak jokatu dira. Izen-ematea zabalik dago, eta hemen egin daiteke: Hernanin, Aker, Garin, Oindi, Rioja eta Zintzarri tabernetan; eta Ereñotzun, Irrintzi tabernan. ■

■ GOIZ EGUZKI

Izena emateko azken eguna gaur, Cantabriarako

Cantabriara hiru laguneko bidaia antolatu du Goiz Eguzkik, eta gaur da izena emateko azken eguna. Prezioa: 157 euro pertsonako. ■

■ ABESBATZAK GOIZ EGUZKI - OZENKI

Ozenki abesbatzak 20 urte ospatuko ditu, kantuak leku berezia duen aste honetan

Bi kontzertu izango dira aste honetan. Asteazkenean Goiz Eguzkik kantatuko du Oñatiko koruak lagunduta, eta larunbatean Ozenkik, Getariako bandak lagunduta.

EREÑOTZUKO Ozenki abesbatzak 20 urte bete ditu, eta ospakizunak egingo ditu aste honetan, kantuak leku berezia izango duen astean, hain zuzen. Izan ere, bi kontzertu izango dira aste bakarrean Hernanin. Goiz Eguzki abesbatzak kontzertua dauka asteazkenean, Oñatiko Aloña abesbatzarekin batera, eta Ozenkik larunbatean egingo du, Getariako banda lagun duela.

14 kantu, Goiz Eguzkin

Goiz Eguzki abesbatzak eta Oñatiko Aloña abesbatzak 14 kantuko kontzertua emango dute, asteazkenean, 19:30etan, Goiz Eguzkin bertan. Txefe Ormazabal bakarlarriak lagunduko die hernaniarrei, eta Javier Zubimendik egingo ditu zuzendari lanak. Oñatiko koruak Miguel Mari Guridi soinu-jolea gonbidatuko du, eta Loli Ordoki dute zuzendari.



Ozenki abesbatza, Gabonetako kontzertuan, Milagrosan.

Ozenki, historia egiten, Ereñotzutik abiatuta

20 urte, 20 urte dira. Historia txiki bat egin du jadanik Ozenki abesbatzak, eta hori ospatzeko, larunbatean kontzertua emango du, Getariako korua lagun duela, Milagro-

Bederatzi kantu joko dituzte larunbatean.

san. 9 kantu abestuko dituzte, 19:30etatik aurrera.

Getariako bandak ekingo

dio kontzertuari, bakarrik. Ozenki abesbatzak ere bakarrik kantatuko ditu hurrengo lau kantak, eta azkeneko lauak elkarrekin. Zuzendari lanak Aitor Uria, Imanol Kamio eta Arkaitz Larrañagak egingo dituzte. ■

■ ONGINTZA

Ikastaroak, haur eta gazteen gurasoentzako

Bost egunetako ikastaroak dira, maiatzak 6, 20, 27 eta ekainak 3, 10. Asteazkenean bitartean eman daiteke izena Ongintzak antolatutako ikastaroetan. Deitu: 943 55 78 54

ONGINTZA Patronatuak bost eguneko bi ikastaro antolatu ditu haur eta gazteen gurasoentzako. Ikastaro honekin lagundu egin nahi zaie umeei, modu egoki batean hazi eta garatzeko, eta ho-

retarako beharrezko diren jakintzak eta erramintak eman nahi zaizkie gurasoei, eurek ere ahalik eta parte gehien hartu dezaten umeak hezitzeke garaian.

Deitu, asteazkena baino

lehen, eta Ana Gofiren galdara egin, telefono honetan: 943 55 78 54.

Funtsean, ikastaro berdina Adinaren arabera bi ikastaro egingo dira, gai ezberdinak

aztertuko baitira, helburua berdina bada ere: batetik, 0-9 urteko haurren gurasoentzako eta bestetik 10-18 urteko gazteen gurasoentzako. Ordutegi ezberdinetan egingo badute ere, egunak berdinak dira. ■

VGALDETXXO
Jatetxea

BAZKARIAK

ETA

AFARIAK

Ereñotzu auzoa
20120 Hernani (Gipuzkoa)
Tel: 943 55 02 40

Allianz

ASEGURUAK

- bizitza -
- ietripuak -
- ibilgailuak -
- etanak -
- komertzioak -
- enpresak -
- auzura zibila -
- finantz asagunak -
- inbertsioak -

agustin ezponda irizar
agentzia

Nagusia, 13
Tel.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

OINDI

taberna

NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

ITXASPE

Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 653 74 10 97
20120 Hernani

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 • **Gauetz**: Aizpuru Latsunberri 11 943 336077

EGURALDIA GAUR Eguraldiak txarrera egingo du berriro. Goizaldean, euri asko egingo du. Arratsaldean, berriz, atertuz joango da. Ipar-mendebaldeko haizea. Min. 10° / Max. 17°

BIHAR Lainoak eta ostarteak tartekatuko dira. Zaparrada batzuk botako ditu, batez ere arratsaldean. Ipar-mendebaldeko joko du. Min. 11° / Max. 18° (euskaime)



Estitxu Eizagirre Kerejeta, atzo Biterin, liburu aurkezpenean.

■ BERTSOLARITZA

Estitxu Eizagirrek atzo aurkeztu zuen bi mendetako bertso historia biltzen duen liburua

HERNANIKO bertsozaleak gustora egoteko moduan dira, atzotik bai baitaukate beste denbora pasa bat: 750 orrialdeko bertso liburua, Hernaniko bertsozalearen haria nondik nora joan den esplikatzeko duena, azken 250 urteotan. Estitxu Eizagirre Kerejeta idatzi du liburua, *Bertsoaren Haria Hernanin* izenburua daukana, eta atzo aurkeztu zuen Biteriko Areto Nagusian, 90 lagun ingururen aurrean. Hernaniko bertso eskolako argitaratu du liburua, Hernaniko Udalaren laguntzarekin. Udalaren izenean, Luis Intxauspek adierazi zuen bertsozaleak Hernanin duen indarra eta garrantzia, eta Udala beti laguntzeko prest izango dela, bide horretan. Horrela bada, Hernani Bertsoaren proiektuari bukaera eman zaio. Proiektuak biltzen ditu: 35 elkarrizketekin egindako DVDa, ikastetxeetarako unitate didaktikoa, web orrialdea eta liburua. Liburua salgai dago, 25 euroan, Dobera euskara elkartearen, Elkar eta Leokadisti liburudendetan, eta *Argia.com* helbidean. ■

■ TILOS 7 PASA

Bederatzi partidu jokoan, gaurtik asteazkeneera

Ligaxkako hiruna partidu izango dira egunero. Tilosetan jokatuko dira guztiak, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

TILOS 7 PASA txapelketak beste bederatzi partidu izango ditu aste honetan. Gaurtik asteazkeneera izango dira, Tilosetan, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Hiru partidu izango dira egun bakoitzean.

Astelehenean: Torero-Aritz

eta Peru-Oier (19:00); Juarez-Erostarbe eta Rodriguez-Del Rio (19:45); eta Kerejeta-Gurrutxaga eta Aizpuru-Amed (20:30).

Asteartearen beste hiru: Jon-Xabier eta Iban-Xabier (19:00); Errasti-Esnaola eta Xenki-Xa-

bier (19:45); eta Magi-Txema eta Aitor-Joxemi (20:30).

Asteazkenean, berriz, honakoak: Ekaitz-Iñaki eta Xapo-Frai (19:00); Esnal-Andutz eta Lujanbio-Lujanbio (19:45); eta Zabala-Arluziaga eta Iorritz-Unai (20:30). ■

■ ASTEBURUKO EMAITZAK

ESKU PELOTA - XI BERRI TXAPELKETA			ERREMONTA		
Seniorrak	Ugalde anak (Oiarpe)/Perez-Jaio (Izarra)	5-22	1go partidua	Ezkurra II-Larrañaga/Seguroa-Saldias	35-24
Jubenilak	Flores-Arzuillu (Oiarpe)/Alda-Arandia (Izarra)	13-22	Sagardo.Tx.	Matxin III-Etxeberria III/Etxeberria IV-Ion	34-40
Kadeteak	Hernandez-Ugalde (Oiarpe)/Rico-Saenz (Izarra)	22-16	3. partidua	Urriza-Endika/Juaristi-Barnetxea IV	30-40
			4. partidua	Juanenea-Aizpuru III/Matxin VI-Zubiri	30-28



'A tempo' bikoteak pieza klasikoak eta propioak tartekatu zituen.

■ AKORDEOI KONTZERTUA

Musikari ezagunen doinuak Milagrosan

Pieza klasikoak eta berriak nahastuz, emanaldi ederra egin zuen Maitane Sebastianek eta Philippe de Ezcurrak, biolontxelo eta akordeoia hartuta. *A Tempo* bikoteak musikari ezagunen doinuak eta propioak tartekatu zituen larunbatean, publikoaren belarriak alaitzeko. Entzungai izan ziren J.S. Bach, Maurice Ravel, Edward Grieg, Pablo Sarasate, Dave Brubeck eta Astor Piazzollaren piezak. ■

■ ARRAUNA

Hernaniko trainerilla seigarren, Getariako estropadan

Seigarren postuan sailkatu zen, atzo, Hernaniko trainerilla, Getarian jokatuako estropadan. Larunbatean, berriz, zortzigarren izan ziren, Zarautzen. Gipuzkoako Trainerilla Ligakoak ziren bi saioak. ■

■ SAN JOAN KONPARTSA

Zozketaren irabazleak, maiatzak 11 baino lehen deitu behar du

Elgorriagako bainuetxean bi lagunentzako plana zozketatu zuen San Joan Konpartsak. Errifa saritua 0496 zenbakiduna izan zen, eta irabazleak maiatzaren 11 baino lehen deitu behar du, telefono zenbaki honetara: 695 753 138. ■

■ ZINEA

Oso sarrera gutxi, gaurko saiorako

Gaur izango da 8 *apellidos vascos* pelikularen azken saioa, Biterin. Atzo, iluntzean, 6 sarrera bakarrik geratzen ziren. Baten bat gelditzen bada, 2,5 euroan erosi daiteke, 16:00etatik aurrera. ■

■ ERNAI

Autobus txartelak eskuragarri, 'Manifestakzio' Nazionalerako

Maiatzaren 3rako 'Manifestakzio' Nazionala deitu du Ernai, Bilbon. Deustuko zubitik abiatuko dira, 17:30etan. Hara joateko, autobusak izango dira Hernanitik. Txartelak eskuragarri daude Garinen, 5 euroan, eta ordainketa autobusera igotzean egingo da. ■

IRAGARKI MERKEAK

Pixua alokatzen da zentroan, 4 gela, bi komun, sukaldia, egongela-jangela, 100m2. Erdigunean, altua eta eguzkitsua. Deitu: 699 49 22 35

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)